

ERRETAULAK

Andre Maria Doloretakoaren erretaula

Nahiz eta dokumentatu gabe egon, ebidentzia formalak eta estilistikoak kontuan hartuta, obra hau Gasteizen lan egin zuten hiru maisu neoklasiko garrantzitsuenen emaitza dela esan dezakegu. Itxura guztien arabera, arkitektura-lana Benigno de Morazak egina da. Eskultura-lana, berriz, Mauricio de Valdivielso emaitza da, zalantzarak gabe, eta polikromia, haren laguntzaile José López de Torre edo Bartolomé Vascorena. Maisu horiek neoklasizismoaren elite artistikoaren kide izan ziren garai hartan lur hauetan. Erretaulak oinplano horizontal eta ondo proportzionatua du, “erretaula-koadroa” tipologiarri jarraitzen dio, eta gorputz eta atiko bakarra ditu. Andre Maria Doloretakoaren mulko biribileko tailu bat da erretaula-buru, Mauricio Valdivielso eskultoreak egina seguruenik. Fuste leuneko eta kapitel korintoarreko zutabeak ditu alboetan, taulamenduaren euskarri. Erretaularen gailurrean, tondo bat dago, margolan batekin: Kristo hila lurrean pausatua, izara zuri baten gainean. Itxura guztien arabera, José López de Torreren lana da. Tondoaren albo banatan, Aingeru nahigabetuen irudiak daude, horiek ere Mauricio de Valdivielsoek eginak.



Egilea: Ustezko egileak: Eskultura: Mauricio de Valdivielso (1760-1822), Arkitektura: Benigno de Moraza, Pintura: José López de Torre edo Bartolomé Vasco

Data: 1817

Teknika: Zur polikromatua

Neurriak: 563 x 240 x 66 cm inguru

Kokapena: Santa María Katedrala (Vitoria-Gasteiz), Santiago kapera, egungo Santa María eliza



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

LOPEZ DE GUEREÑU, Gerardo. “Los santeros de Payueta”, *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, 1976, n.º 20, pp. 327-364.

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. “Catedral de Santa María (catedral Vieja)”. En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, p. 112-113.

TABAR ANITUA, Fernando. “Neoclásico”. En: GONZÁLEZ DE SAN ROMÁN, Miguel (Dir.). *Vitoria-Gasteiz en el Arte*, vol. II, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 1997, pp. 482-483.

BARTOLOMÉ GARCÍA Fernando R. *José López de Torre (1755-1829) y la pintura neoclásica en Álava*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 2007, pp. 135-136.



Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García

Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba Álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzatutako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:

katedrala
SANTA MARIA



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erresexbak

Tel. 945 255135

www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa

Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz

